

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### KIROLAREN, OSASUNAREN ETA GARAPENERAKO LANKIDETZAREN SAILA

#### **Gaixotasunak prebenitzeko, osasuna sustatzeko eta gaixotasun kronikoak dituztenen bizi-kalitatea hobetzeko sentsibilizazio proiektuetarako 2026ko dirulaguntzen deialdiaren oinarriak**

2025eko abenduaren 19an egindako ohiko bilkuran aurretiaz onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak gaixotasunak prebenitzeko, osasuna sustatzeko eta gaixotasun kronikoak dituztenen bizi-kalitatea hobetzeko sentsibilizazio-proiektuetarako 2026ko dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarriak.

Gaixotasunak prebenitzeko, osasuna sustatzeko eta gaixotasun kronikoak dituztenen bizi-kalitatea hobetzeko sentsibilizazio-proiektuetarako 2026ko dirulaguntzen deialdiaren oinarriak ALHAOn argitaratu behar dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera.

#### **1. Araudia**

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak, bertan aurreikusitakoaz gain, honako hauen arabera arautuko dira: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua), eta Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorra, zeinaren helburua baita Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozedura arautuko duten oinarri orokorrak ezartzea. Ordenantza horri 2023ko apirilaren 21an eman zitzaion hasierako onespena, eta 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen.

Deialdi honetara aurkeztu nahi duten entitateek dirulaguntzen ordenantza orokor horietara jo beharko dute jakiteko zein betekizun eta betebeharrak dituzten eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak eta laguntza-deialdiko bestelakoak.

#### **2 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa**

Dirulaguntzen deialdi hau Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko urtarrilaren 17an onetsi zuen Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren (2026-2027) 31. lerroaren barruan sartzen da ("2026an gaixotasunak prebenitzearen arloan sentsibilizazio proiektuak egiteko eta gaixotasun zein afekzio kronikoak dituzten pertsonen osasuna sustatzeko laguntzak").

Helburu hauek lortu nahi dira deialdiaren bidez:

Gaixotasunen prebentzioari buruzko informazioa eta zabalkundea, eta osasunaren sustapena.

Gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen edo horien familien bizi-kalitatea hobetzea.

Osasun arazoaren inguruko sentsibilizazioa, euskarria eta laguntza.

Eragindako pertsonak beren osasunean ahalduntzea.

#### **3. Deialdiaren xedea**

Irabazi-asmerik gabeko elkarte, fundazio eta entitateen proiektuak laguntzea da deialdiaren helburua, gaixotasunak prebenitzeko, osasuna sustatzeko eta gaixotasun zein afekzio kronikoak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko sentsibilizazio-proiektuak egiteko, beti ere Vitoria-Gasteizko biztanleei zuzenduta badaude.

Adikzioen arloko programa edo proiektuak ez dira deialdi honen xede.

Udaleko Osasun Planaren esparruan, proiektuak genero-ikuspegitik bideratu behar dira, eta kontuan hartu behar dituzte osasunean desberdintasuna sor dezaketen osasunaren baldintzatzaile sozialak (Euskadiko Osasun Publikoari buruzko 13/2023 Legea, azaroaren 30ekoa, eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea, apirilaren 7koa).

Ondoren zehazten diren alderdiak sustatu beharko dituzte:

Gaixotasunen prebentzioari eta osasunaren sustapenari buruz informatzea eta zabalkundea ematea.

Gaixotasun edo afekzio kronikoak dituzten pertsonen edo horien senideen bizi-kalitatea (osasun ikuspegitik) hobetzea.

Osasun arazoaren arloko sentsibilizazioa, euskarria eta elkarrekiko laguntza.

Eragindako pertsonak beren osasunean inplikatzeko.

Ekitatea osasunean.

Aurkeztutako proiektuek ezingo dute beste udal-plan eta araudi batzuen aurkako ekintzarik jaso, hala nola berdintasun-plana, udaleko gazte-plana, mugikortasun-plana, irisgarritasun-plana, herritarrek parte hartzeko plana, udaleko araudi grafikoa eta hizkuntza-normalizazioa.

Aipatutako planetatik honako irizpide hauek jaso beharko dituzte berariaz:

Berdintasun plana. Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egin beharko dute agiri, publizitate-kanpaina, irudi eta material orotan, emakumeen diskriminazio-irudiak eta estereotipo sexistak oro ekidinez, eta irudietan zenbait balio sustatu beharko dituzte, esaterako berdintasuna, erantzunkidetasuna eta rol eta genero-identitateen aniztasuna.

Euskararen erabilera normalizatzeko plana. Ekitaldia ezagutzera emateko jarduerak oro euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko dira. Bi hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelania) erabili beharko dira dirulaguntza jaso duen programa edo jardueraren publizitatea egiteko erabiltzen diren kartel, testu eta dokumentuetan. Orobat, dirulaguntza jaso duen jardueraren inguruko sustapen-ekitaldi publikoek elebidun izan beharko dute, eta euskara eta gaztelania erabili beharko dira, ordena horretan.

#### 4. Baliabide ekonomikoak

Deialdi honen oinarriak alde aurretik izapidetu dira, azaroaren 17ko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Dirulaguntzen Araudi Orokorraren 56. artikuluan xedatutakoaren ildotik, eta, horrenbestez, dirulaguntzak ematekotan, nahiko kreditu egoki izan beharko du deialdia ebazteko orduan.

Deialdi honetako laguntzak bi programatan banatzen dira: A programa, 2026ko ekitaldian garatu beharrekoa, eta B programa, 2026-2027 ikasturtean garatu beharrekoa.

Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Sailaren (Osasun Publikoko Zerbitzua) 2026ko ekitaldiko aurrekontuko 24.30.01 3112 481.04 (Osasuna sustatzeko dirulaguntzak) partidako aurrekontu-kredituari egotziko zaizkio, 470.000,00 euroko gehieneko zuzkidurarekin, honela banatuta:

A programa: 446.500,00 euro.

B programa: 23.500,00 euro.

Aurkeztutako proiektuak baloratu ondoren, baldin eta programetakoren bat hutsik geratzen bada edo kreditua sobera geratzen, proiektuak baloratzearen ardura duen organoak programa batetik beste batera aldatu ahal izango du kreditua, betiere deialdi honetan onetsitako zenbatekoa gainditu gabe.

2026. urterako behin betiko aurrekontua onartzean partida hori hasieran aurreikusitakoa baino zenbateko handiagoaz hornitzen bada, organo kudeatzaileak erabakiko du deialdiari igoera aplikatzen zaion ala ez. Baiezkoan, ebazpena eman aurretik, dagokion gastu-dosierra izapidetuko da. Ez da beharrezkoa beste deialdi bat egitea.

#### **5. Erakunde onuradunen betebeharrak**

Arlo sanitarioko irabazi asmorik gabeko elkarte, fundazio eta entitate pribatuak izan ahalko dira dirulaguntza hauen onuradun, betekizun hauek betetzen badituzte:

Beren estatutueta helburuen artean berariaz aitortuta izatea osasuna sustatzeko edo elkar-tekideen bizi-kalitatea hobetzeko ekintzak egitea.

Helbidea Vitoria-Gasteizko udalerrian izatea, eskatzaileak udalaz gaindiko entitateak diren kasuetan izan ezik; kasu horietan, dirulaguntzaren xede diren proiektuak Vitoria-Gasteizko udalerrian egin behar dira eta udalerriko biztanleei egon behar dute zuzenduta.

Eusko Jaurlaritzaren Elkarten Erregistro Nagusian —edo dena delako erregistro publikoan— izena emanda egotea, eta datuak eguneratuta edukitzea.

Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Vitoria-Gasteizko Udalarekikoak egunean edukitzea. Eskabidea aurkeztzen denean ez ezik, dirulaguntzaren prozesu osoan ere bete beharko da betebehar hori dirulaguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean.

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 11.2 artikuluan onuradun izateko aipatzen diren debeku-egoeretakoren batean ez egotea.

#### **6. Dirulaguntzaren xede diren programak eta jarduerak**

Deialdi honen harira diruz laguntzen diren programa eta jarduera guztiak jarraian adierazten diren programetakoren baten barruan egin behar dira, eta A programaren kasuan 2026. urtean gauzatu beharko dira, eta B programaren kasuan, 2026-2027 ikasturtean zehar.

Erakundeak programa batera edo bietara aurkeztu ahalko dira. Bi programetara aurkeztzen diren entitateek proiektu bat aurkeztu beharko dute A programarako eta beste bat, desberdina, B programarako, eta proiektu biak agiri desberdinetan aurkeztu beharko dira.

Erakunde bakoitzak 47.000,00 euroko dirulaguntza eskatu ahal izango du gehienez A programan, eta 10.000,00 eurokoa B programan.

A programa.

Izaera sanitarioko programak, patologia kronikoak edo gaixotasun arraroak dituzten pertsonen arreta eta errehabilitazioa emateko prozesuan jarduerak egiteko, kaltetuen familiei zerbitzuak emateko eta herritar guztiei edo talde espezifikoiei zuzenduta dauden gaixotasun kronikoen zabalkunde eta sentsibilizazio proiektuak egiteko.

Jarduera mota hauek lagunduko dira, ez besterik:

Gaixotasunaren inguruko aholkularitza eta informazioa.

Arreta podologikoa.

Errehabilitazio logopedikoa.

Errehabilitazio fisioterapeutikoa.

Errehabilitazio kognitiboa.

Laguntza psikologikoa.

Terapia okupazionala.

Autolaguntza taldeak.

Eragindako pertsonen eta horien familien bizi-kalitatea hobetzeko lan-saio eta lantegiak.

Delako gaixotasunarekin lotutako informazio eta sentsibilizazio jardunaldiak: gaixotasun jakin bati buruzko munduko egunak, biltzarrak, gaixotasun horri buruzko informazio-standak, etab.

Dena delako gaixotasunaren gaiarekin, osasuna sustatzearekin edo gaixotasuna prebenitzearekin lotutako publizitate-kanpainak.

Gaixotasunari zabalkundea ematea edo horren inguruan sentsibilizatzea xede duten beste-lako jarduerak.

Programa honetan sartzen dira entitateak eskatzaileei emandako aholkularitza eta arreta (aurrez aurre, telefonoz), sare sozialak...

B programa.

Gasteiz Hiri Hezitzailea programan parte hartzen duten ikastetxeetan osasuna babesteko eta sustatzeko proiektuak, 2026ko irailaren 1etik 2027ko ekainaren 30era bitartean.

Jarduera mota hauek lagunduko dira, ez besterik:

Gizartea gaixotasunei buruz edo gaixotasunak eragindako estigma soziala murrizteari buruz sentsibilizatzeako programak.

Osasunaren sustapenarekin, babesarekin eta gaixotasunaren prebentzioarekin lotutako proiektuak.

Programa honetan diruz lagundu ezin diren jarduerak

Ez dira diruz lagunduko dagoeneko "Gasteiz Hiri Hezitzailea" programaren barruan eskaintzen diren jardueren antzekoak diren proiektuak.

### **7. Diruz lagundu ezin daitezkeen gastuak**

Oro har, ez dira diruz lagunduko antolakuntzako aperitibo, gosari, catering, bazkari edo afa-riak (ezta antolatzaileek parte-hartzaileei emandakoak ere), ezta jardueretan emandako opariak edo elkarteen jolas-topaketak ere.

Salbuespen gisa, horrelako gastuak onartuko dira, horien beharra arrazoitu eta justifikatzen bada, eta jarduerarekin lotura zuzena badute.

Era berean, ez dira diruz lagunduko entitateetako profesionalen prestakuntzara zuzendu-riko ikastaroak, ibilgetuan egindako inbertsioak (hala nola altzariak, instalazioak, ekipamendu teknikoa, informatikoa edo ikus-entzunezkoa, ibilgailuak eta abar), salbu eta diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten badiote, behar-beharrezkoak badira eta ezarri-tako epean egiten badira.

Baldin eta aurkezten den aurrekontuan diruz lagundu ezin diren gastuak sartzen badira, kendu egingo dira.

### **8. Diruz lagundutako jarduerak azpikontratatu edo gauzatzea, entitate onuradunari lotutako langileen bidez**

Entitate onuradunak diruz lagundutako jarduerak gauzatzea itundu ahal izango du enti-tate onuradunari lotutako pertsona edo entitateekin, betiere organo emailearen alde aurreko baimena lortzen badu eta kontratazioa merkatuko baldintzen arabera egiten bada, diruz la-gundutako jardueraren ehuneko 75eko mugarekin, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 29.7 d) artikuluan ezarritako baldintzetan.

Entitateari lotutako pertsonatzat joko dira zuzendaritza batzordeko kide izanik aurkeztutako proiektuko jarduerak egiteagatik ordainsaria jasotzen dutenak.

Entitate onuradunak elkarteari lotutako langileekin jarduerak egitea aurreikusi badu, "Azpikontratatzeko baimen-eskabidea" eranskina aurkeztu beharko du, deialdiaren dokumentazioarekin batera.

Soilik Osasun Publikoaren Zerbitzuak berariazko baimena ematen badu onartuko dira elkarteari lotutako pertsonen izenean egindako ordainagiri, faktura eta nominak. Ez da baimen-eskabiderik onartuko deialdirako eskabideak aurkezteko epetik kanpo lotu diren langileak azpikontratatzeko.

Hasierako proiektuak birformulatuz gero, lotutako langileak azpikontratatzeko ehunekoen aldaketak onartuko dira, betiere tarte berean mantentzen badira. Horretarako, azpikontratatzeko beste baimen-eskabide bat aurkeztu beharko da, dagokion eranskina berriro betez.

Ezarritako tarteak, proiektuaren aurrekontu osoari dagozkionak, honako hauek dira:

Proiektuaren aurrekontu osoaren ehuneko 30,00 arte.

Proiektuaren aurrekontu osoaren ehuneko 30,01etik ehuneko 75,00era arte.

Emandako dirulaguntzaren justifikaziotik ondorioztatzen bada baimendu gabeko azpikontratatzetik egin izan dela, edo azpikontratazioaren ehunekoa baimendutakoa baino handiagoa izan dela, entitateak horri dagokion zenbatekoa itzuli beharko du.

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 24.1 artikulua xedatzen duen moduan, Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Saileko zinegotzi ordezkariaren esku uzten da entitate onuradunarekin lotura duten pertsona edo entitateekin diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko baimena emateko eskumena, betiere deialdi honek zehazten duen gehieneko kopurua gainditu gabe.

#### **9. Azpikontratatzea, entitate onuradunarekin loturarik gabeko langileen bidez**

Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 29. artikulua ezartzen dituen baldintzak errespetatuta, entitate onuradunak berekin loturarik ez duten pertsonak edo entitateak azpikontratatu ahalko ditu diruz lagundutako jarduera osoa (ehuneko ehun) gauzatzeko.

Azpikontratatzeko zenbatekoa 15.000,00 eurotik gorakoa bada, entitate onuradunak, gutxienez, hiru eskaintza eskatu beharko dizkio hiru hornitzaile desberdini, salbu eta merkatuan ez badago zerbitzu hori eskaintzen duen behar adina hornitzaile. Aurkeztutako eskaintzen arteko aukeraketa dirulaguntzaren justifikazioan erantsi beharko da, eta, proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzen ez bada, berariaz justifikatu beharko da aukeraketa hori.

#### **10. Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea eta legua**

Eskabideak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa da, deialdiaren oinarriak ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean hasita. Larunbatak, igandeak eta jaiegun izendatuak ez dira egun balioduntzat hartuko.

Dokumentazioa egoitza elektronikoen bidez aurkeztuko da lehentasunez, elektronikoki sinatuta, helbide honetan: <https://egoitzaelektronikoa.vitoria-gasteiz.org>. Egoitza elektronikoen esteka - erregistroa.

Ezinezkoa bada, herritarrei laguntzeko bulegoren batean aurkeztuko da, bertan erregistra dezaten, eta dokumentazio guztia formatu digitalean eraman beharko da pendrive batean. Herritarrei laguntzeko bulegoko langileek dokumentuak erregistratuko dituzte, eta euskarri digitala itzuliko diote interesdunari.

Eskabide hutsa aurkeztzen bada, proiektua eta aurrekontua erantsi gabe, ez da tramitera onartuko.

Gainerako dokumentazioari dagokionez, hamar eguneko epea emango zaie interesdunei nahitaezko dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaie ezen, hala egiten ez badute, eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela. Jakinarazpenak, nagusiki, posta elektronikoz egingo dira jaso izanaren egiaztatagiriarekin—, eskabidean ageri den helbidean.

Dokumentu hauek aurkeztu behar dira, pdf formatuan:

A. Vitoria-Gasteizko Udalarari dirulaguntza eta laguntza ekonomikoa eskatzeko orria, 2026ko dirulaguntzen deialdiak arautzeko oinarri orokorretarako ereduaren arabera, zeina udalaren helbidean baitago eskuragarri: [www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak](http://www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak).

B. Elkartea legez eratuta eta Eusko Jaurlaritzaren Elkarteen Erregistro Orokorrean edo dagokion erregistro publikoan izena emanda dagoela egiaztatzen duten agiriak (aldez aurretik aurkeztu ez badira).

C. Entitatearen estatutuen eta identifikazio fiskalerako txartelaren kopia bana, baldin eta Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Sailaren deialdi batean parte hartzen duen lehenengo aldia bada, edo aldaketaren bat izan badute aurkeztu ziren azken alditik.

D. Eskatzailearen ordezkariaren egiaztapena eta elkarre eskatzailearen legezko ordezkariaren nortasun agiriaren (NAN) edo atzeritarraren identifikazio zenbakiaren (AIZ) kopia.

E. Banku entitatearen egiaztapen eguneratua, kontu-zenbakia eta titularraren izena agertzen dituen eskabidea izenpetzen duen elkarre berak izan beharko du titular.

F. “Erantzukizunpeko adierazpena” eranskina, B programako jarduerak egiten dituzten pertsonak ez dutela sexu izaerako deliturik egin ziurtatuz.

G. “Azpikontratatzeko baimena” eranskina. Erakunde onuradunarekin lotura duten pertsona edo entitateak azpikontratatzeko baimen eskabidea, halakorik egitekoa bada.

H. Jardueren proiektu osoa:

Proiektu osoa: dokumentu honetan proiektuaren helburu orokorrak eta espezifikoak betetzeko gauzatuko diren jarduerak guztiak zerrendatuko dira, eta xeheki azalduko, dokumentuan ageri diren jarduerak jakin batzuk gauzatzeko Osasun Publikoaren Zerbitzuari laguntzarik eskatu ez bazaio ere. Azken hori ezinbestekoa da proiektua behar bezala puntuatzeko, proiektua bere osotasunean baloratuko baita, eta ez bakarrik Osasun Publikoaren Zerbitzuari laguntzeko eskatutako jarduerak espezifikoak.

Jarduera: proiektu osoan ageri diren ekintza edota zerbitzuak, horietarako Osasun Publikoaren Zerbitzuari laguntza eskatu zaion kontuan izan gabe. Deialdi honek xedatzen duenaren arabera, diruz laguntzeko modukoak izan behar dute jarduerak.

A edota B programa bakoitzerako, proiektua propio egindako dokumentu batean jaso beharko da, eta ez ditu 40 orri baino gehiago izango.

Proiektuko jarduerak bakoitzari dagozkion gastuak argi eta garbi adierazi beharko dira.

Aurkeztutako proiektuak jarraian adierazitako atalak izan behar ditu, ezarritako hurrenkeran. Eskatzaileak proiektua hobeto baloratzeko egokitzat jotzen duen beste edozein informazio edo agiri erantsi ahal du.

Pertsonen buruzko datuak generoaren (emakumea/gizona/ez bitarra) arabera bereizita aurkeztu beharko dira: posible bada, aurkeztutako proiektuan bertan, eta, nahitaez, aurrerago egingo den justifikazioan.

H.1. Entitatearen ibilbidea:

Entitatearen ezaugarriak: fundazio-urtea, Vitoria-Gasteizko bazkideen eta elkartean era aktiboan parte hartzen duten boluntarioen kopurua; entitateak izan duen ibilbidearen laburpena: zenbat urte daramatzen lanean, egindako proiektu garrantzitsuak, zein entitatearekin lan egin duen, zein forotan parte hartu duen, entitatea antolatze eta kudeatzeko moduak (langileak, ekipamendua, zereginen banaketa).

Elkarteko zuzendaritza batzordeko kideen generoaren arabera banaketa ere zehaztu behar da.

## H.2. Justifikazioa eta xedea.

Proiektu osoaren oinarriak.

Helburu orokor nahiz espezifikoaren formulazioa.

H.3 Proiektu osoaren jarduerak eta ekintzak, jarduera bakoitzerako honako atal hauek zehaztuta:

– Aurreikusten diren ekitaldien kopurua.

– Edukiak.

– Metodologia, dinamikak eta gauzatze-kronograma.

– Baliabide materialak: jarduera gauzatzeko behar diren materialak adierazi beharko dira, hala nola informatika-tresneria, baliabide materialak, ikus-entzunezko materialak, ibilgailuak, etab.

– Espazioak eta/edo instalazioak: jarduera gauzatzeko behar diren espazioak edota instalazioak zehaztu beharko dira. Adierazi egin behar da zein udal espazio publikotarako eskatzen den tasa-hobaria edo tasatik salbuestea, data adierazita (7.11 ordenantza fiskala). Proiektua garatzen ari delarik hasiera batean aurreikusita ez zegoen espazioren bat erabiltzeko beharra sortzen bada, diruz lagundutako proiektuaren jarraipena egiteaz arduratzen den teknikariari jakinarazi beharko dio entitateak, eta hark kudeatuko du.

– Hizkuntza: bi hizkuntza ofizialak erabiltzea.

– Zabalkundea: jardueraren zabalkunderako erabiliko diren baliabide, euskarri, kanal eta ekintza guztiak adierazi beharko dira. Zabalkunderako landutako kartel eta testuek sexismorik gabeko hizkuntza eta irudiak baliatu beharko dituzte, eta udalaren lankidetzaren erakusten duen seinaleetika sartu.

– Profil profesionalak, boluntarioak eta bakoitzaren zereginen banaketa jardueraren barruan: argi eta garbi adierazi beharko dira langileen kopurua, profila, eginkizunak, dedikazioa eta abar.

– Bestalde, bereizi egin beharko dira ordaindutako langileak, zuzenean eta zeharka kontratatutakoak, eta dirurik jasoko ez duten boluntarioak eta/edo laguntzaileak.

– Jardueraren xede izango den publikoa zehaztea.

– Jarduerak herritarrak sentsibilizatzeko atalik izango duen.

– Lankidetzaren beste erakundeak batzuekin.

– Osasunean generoagatik, arrazoi sozioekonomikoengatik, etniagatik, dibertsitate funtzionalagatik eta abarengatik dauden desberdintasun sozialak murrizteko edo saihesteko neurriak.

– Ebaluazioa: ebaluazio-metodologia eta erregistratuko diren adierazleak, eta proposatutako helburuak bete diren ala ez baloratzeko erabiliko diren irizpideak. Gainera, proiektua aurreko urtean garatu bada, aldeztu aurretik egindako ebaluaziotik sortutako hobekuntzarik izan den adierazi behar da, eta, hala bada, adierazi eta zehaztu.

Jardueraren ebaluaziorako egiten diren estatistika, inkesta edo datu-bilketetan parte hartzaileen generoa kontuan hartu behar da sistematikoki.

– Eskatzaileak programa edo jarduera hobeto balioesteko egokitzat jotzen duen beste edozein agiri.

Gainera, B programan, saioetan erabiliko diren ikasmaterialak erantsi beharko dira, bi hizkuntza ofizialetan, jarduera emango den gehiengo ikasgela kopurua eta jarduerak izango dituen saio kopurua.

Era berean, lantegiak bideratuko dituzten pertsonen genero-berdintasunaren arloan gutxienez 10 orduko prestakuntza dutela egiaztatu beharko dute, edo, bestela, lantegiak ematen hasi aurretik prestakuntza hori egiaztatzeko erantzukizunpeko adierazpena.

I. IV-S eranskina (sarrera eta gastuen aurrekontua): jarduera bakoitzeko sarrera eta gastuen banaketa xehatua jaso beharko du, IV-S (sarrera eta gastuen aurrekontua) eranskinaren arabera. Dokumentu hori, pdf formatuan aurkeztutako proiektuaren parte izateaz gain, bereizita ere aurkeztuko da, kalkulu-orri batean.

### 11. Balorazio-irizpideak

A programan kontuan hartuko diren alderdiak:

1. Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa: proiektuaren kostu-eraginkortasuna, aurrekontuaren xehetasun eta koherentzia, gehienez 10 puntu, atal hauetan banatuta:

Aurrekontua proiektuaren neurrira egokitzea, gehienez 5 puntu.

Finantzetaren definizioa eta banaketa, gehienez 5 puntu.

Gutxienerako muga: bideragarritasun ekonomikoaren irizpidean 5 puntu edo gehiago lortu dituzten proiektuak bakarrik lagundu ahal izango dira diruz.

2. Proiektuaren bideragarritasun teknikoa, gehienez 60 puntu. Ezaugarriak, kalitatea eta diseinua baloratuko dira, alderdi hauek kontuan hartuz:

Proiektuaren justifikazioa: laguntzaren xede diren jardueren koherentzia, egokitasuna eta helburuen zehaztapena, gehienez 10 puntu.

Proiektuaren barruko jardueren zerrenda, gehienez 15 puntu, honako atal hauetan banatuta:

Jarduera bakoitzaren deskribapen zehatza eta egokitasuna, gehienez 5 puntu.

Eragindako pertsonen eta/edo horien familien inplikazio jardueran, gehienez 5 puntu.

Herritarrak, oro har, sentsibilizatzea, gehienez 5 puntu.

Proiektuaren metodologia eta exekuzioa, gehienez 25 puntu, honako atal hauetan banatuta:

Metodologia eta urteko aurreikuspena. Gehienez 7,5 puntu.

Lanbide-profilak, gehienez 5 puntu.

Boluntarioria, gehienez 7,5 puntu.

Lanen banaketa: gehienez 5 puntu.

Ebaluazioa, gehienez 10 puntu, atal hauetan banatuta:

Planteatutako helburuen deskribapena, aurreko ikasturteko emaitzekin edo abiapuntuarekin koherentzia, gehienez 5 puntu.

Erabilitako ebaluazio-tresnen aurkezpena, hala nola gogobetetasun-inkestak edota eskuratutako ezagutzen testa: gehienez 5 puntu.

Gutxienerako muga: bideragarritasun teknikoaren irizpidean 30 puntu edo gehiago lortu dituzten proiektuak bakarrik lagundu ahal izango dira diruz.

3. Proiektuaren beste alderdi batzuk, gehienez 30 puntu, atal hauetan banatuta:

Genero-ikuspegia eta osasun-arloko desberdintasun sozialen murrizketa, gehienez 25 puntu:

Elkarteko antolatzaileek generoari edo berdintasunari buruz duten prestakuntza (10 ordu): 7 puntu.

Jardueren xede diren Vitoria-Gasteizko biztanleen testuinguruaren aurkezpena eta elkartearen sartzeko modua identifikatzea, gehienez 6 puntu.

Elkartean sartzeko moduak identifikatzea, generoaren, auzoen edo etniaren arabera: 6 puntu, gehienez.

Estrategia ekitatiboak izatea jardueretan parte hartzeko edo jarduerak gauzatzeko: gehienez 6 puntu.

Sareko elkarlana, gehienez 5 puntu.

B programan kontuan hartuko diren alderdiak.

1. Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa: proiektuaren kostu-eraginkortasuna, aurrekontuaren xehetasun eta koherentzia, gehienez 10 puntu, atal hauetan banatuta:

Aurrekontua proiektuaren neurrira egokitzea, gehienez 5 puntu.

Finantzetaren definizioa, banaketa eta azpikontratazioa, gehienez 5 puntu.

Gutxieneko muga: bideragarritasun ekonomikoaren irizpidean 5 puntu edo gehiago lortu dituzten proiektuak bakarrik lagundu ahal izango dira diruz.

2. Proiektuaren bideragarritasun teknikoa, gehienez 76 puntu. Ezaugarriak, kalitatea eta diseinua baloratuko dira, alderdi hauek kontuan hartuz:

Eskola-adinean sentsibilizatzeko beharraren justifikazioa, prestakuntzak hautemandako premia bati erantzuten diola frogatuta, gehienez 7 puntu.

Helburuen definizioa, gehienez 7 puntu.

Programaren deskribapena, edukia, material didaktikoa eta erabilitako baliabideak, gehienez 43 puntu, honela banatuta:

Edukiak eta hezkuntza-maila ezberdinekiko egokitzapena, 6 puntu.

Material didaktikoen aurkezpena eta egokitasuna, 8 puntu.

Saio kopuruak adieraztea, 6 puntu.

Guraso eta irakasleen inplikazioa, 5 puntu.

Eman beharreko edukien xehetasuna, gehienez 8 puntu.

Programak garatzen dituzten langileak, profil profesionalak eta boluntarioak, gehienez 10 puntu.

Lantegiak bideratuko dituzten pertsonen genero berdintasunaren arloan gutxienez 10 orduko prestakuntza egiaztatua izatea, edo lantegiak hasi aurretik prestakuntza hori jasotzeko erantzukizunpeko adierazpena, 5 puntu.

Metodologia, gehienez 14 puntu.

Gutxieneko muga: bideragarritasun teknikoaren irizpidean 38 puntu edo gehiago lortu dituzten proiektuak bakarrik lagundu ahal izango dira diruz.

3. Prestakuntzaren balorazioa, gehienez 14 puntu. Honako hauek baloratuko dira:

Ebaluazio-metodoa. Ebaluazio-tresnak. Adierazleak. Jarduera ebaluatzeko egiten diren inkestak edo datu-bilketak, gehienez 5 puntu.

Ikaskuntzaren ebaluazioa eta hartzailen gogobetetze-maila, gehienez 9 puntu.

## **12. Dirulaguntzen zenbatekoa kalkulatzeko**

Proiektu bakoitzak, gehienez, 100 puntu eskuratu ahalko ditu.

A programan 47.000,00 eurokoa izango da gehienezko laguntza proiektu bakoitzeko, eta 10.000,00 eurokoa B programan.

Deialdiaren baldintzak eta irizpideak bete dituzten proiektuetako bakoitzari emango zaion zenbatekoa kalkulatzeko, onartutako eta balioetsitako eskaerak alderatuko dira, eta, hala, haien arteko lehentasun-hurrenkera ezarriko da.

Aurrekontu zuzkiduraren zenbateko osoa era proportzionalean banatu da, lortutako puntuazio-tarteen eta eskatutako zenbatekoaren arabera. Eskaera guztiei erantzuteko, deialdira bideratutako gehieneko zenbateko osoa onartutako entitate guztien artean hainbanatuko da.

Dena den, dirulaguntzen eta bestelakoren bitartez lortutako finantziazioaren kopuru osoa ezin izango da diruz lagundutako proiektuaren kostu osoa baino handiagoa izan.

### **13. Birformulazioa**

Aurreikusitako dirulaguntzaren zenbatekoa aurkeztutako eskabidean adierazitakoa baino txikiagoa bada, entitate onuradunari eskaera birformulatzeko eskatu ahal izango zaio, konpromisoak eta baldintzak eman daitekeen dirulaguntzara egokitzeko, betiere dirulaguntzen ordenantza orokorraren 23.2 artikulua arabera.

### **14. Bestelako dirulaguntzekiko bateragarritasuna**

Deialdi honen barruan eskura daitekeen dirulaguntza bateragarri izango da beste administrazio edo entitate publiko nahiz pribatuk helburu berarekin ematen dituen laguntzekin, laguntzen zenbateko guztiak proiektuaren aurrekontua gainditzen ez badu. Horretarako, eskatzaileek proiektu honetarako eskatutako eta lortutako laguntza guztiak aitortu beharko dituzte.

### **15. Dirulaguntza emateko prozedura**

Elkarren arteko lehia baliatuko da deialdi honetako dirulaguntzak emateko prozedura gisa, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren III. kapituluaren ezarritakoarekin bat etorrira.

Komunikazioak.

ALHAOren bidez egingo dira dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenaren jakinarazpenak, betiere Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren irizpideei jarraituz.

Instrukzio organoa.

Osasun Publikoaren Zerbitzuko Administrazio Ataleko burua izango da organo instrukzio-egilea. Hark ofizioz egingo ditu dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena taxutzeko baliatuko diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduerak oro.

Balorazio batzordea.

Kide anitzeko organo bat eratuko da eskabideak baloratzeko eta laguntzak emateko proposamenak egiteko. Honako hauek osatuko dute organo hori: Osasun Zerbitzuko buruak, Osasunaren Sustapenaren Ataleko buruak eta Osasun Publikoaren Zerbitzuko Osasunaren Sustapenaren Ataleko teknikari batek. Administrazio Ataleko buruak idazkari lanak egingo ditu. Behar izanez gero, Osasun Publikoaren Zerbitzuko beste langile batzuek ordezkatuko dituzte kide horiek.

Prozedura.

Proiektuak baloratu ondoren, batzordeak txosten teknikoa egingo du, eta instrukzio-organok ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta. Proposamen hori udalaren webgunean argitaratuz jakinaraziko da, eta hamar egun balioduneko epea emango da alegazioak aurkezteko.

Aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, instrukzio-organok behin betiko ebazpen-proposamena egingo du. Proposamen horretan, onuradunak zein izango diren, laguntzen zenbatekoak eta ebaluazioan erabilitako balorazio-irizpideak zehaztuko dira.

Behin betiko ebazpen proposamena ALHAOn argitaratuz jakinaraziko da. Entitate onuradunen batek laguntza onartuko ez balu, 5 egun baliouduneko epean jakinarazi beharko luke, Osasun Publikoaren Zerbitzuari zuzendutako idazki bat erregistratuz.

Tokiko Gobernu Batzarra da deialdia onetsi eta ebazteko eskumena duen organoa. Hala ere, eskumenak eskuordetzeko 2025eko maiatzaren 14ko erabakian ezarritakoarekin bat etorritik, berriaz eskuordetzen zaio Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Saileko zinegotzi ordezkariari laguntza deialdi hau ebazteko eskumena, onuradunei dirulaguntzak emateko izapideak arindu ahal izateko, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3.1.d) artikuluan ezarritako «Administrazio-prozeduren eta kudeaketako jarduera materialen arrazionalizazio- eta arintasun-printzipioa» oinarri hartuta.

Dirulaguntzak eman edo ukatzeko erabakiak agortu egingo du administrazio-bidea, eta horren kontra zuzenean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Nolanahi ere, alde aurretik aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, erabakia jakinarazten den egunaren biharamunetik. Hala eginez gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu harik eta hura espresuki edo ustez ebatzi arte. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahalko da, bi hilabeteko epean, egintza argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, dagokion araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Dena den, interesdunek egoki irizitako beste edozein errekurtsio aurkez dezakete, nahi badute, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Deialdia ebatzi eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa da, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Oinarri hauetan berriaz aurreikusi gabekoetan, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen udal ordenantza aplikatuko da, baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta horren erregelamendua ere —uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia—, eta aplikagarri diren gainerako arauak.

## **16. Dirulaguntza ordaintzea**

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da:

Laguntzaren ehuneko 80 dirulaguntza ematen den unean ordainduko da banku transferentzia bidez, dirulaguntzaren aurrerapen gisa.

Gainerako ehuneko 20a justifikazioa bidali eta onartzearen mende egongo da.

Ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta pertsona edo entitate onuradunak:

Udalak lehendik emandako beste dirulaguntzaren bat justifikatu gabe badu.

Aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaionean.

Zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta ez baditu. Zirkunstantzia hori prozeduraren fase guztietan egiaztatuko da: eskaera, behin-behineko emakida, behin betikoa, ordainketa...

### 17. Dirulaguntza aldatzea

Salbuespen gisa, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzeko eskatu ahal izango diote onuradunek dirulaguntza eman duen organoari, baldin eta diruz lagundutako jarduera edo proiektua gauzatzea aldatzen edo zailtzen duten ezusteko zirkunstantziak agertzen badira, edo beharrezkoa bada jarduera behar bezala gauzatzeko.

Eskabidea baimendu ahal izango da, baldin eta dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Jarduera burutzeko epea amaitu baino lehen aurkeztu beharko da aldaketa egiteko eskabidea.

### 18. Dirulaguntza justifikatzea

Nahitaez justifikatu beharko du jasotako dirulaguntza pertsona edo entitate onuradunak, justifikazio kontu arruntaren modalitatearen bidez, Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 33. artikuluan eskatutako dokumentazioa aurkeztuta.

Justifikazioa aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, proiektua gauzaten amaitzen denetik zenbatzen hasita; horrenbestez, martxoaren 1ean amaituko da epea A programako laguntzei dagokienez, eta irailaren 1ean, B programako laguntzei dagokienez.

Oroitidazki ekonomikoan deialdi honetara aurkeztutako proiektuaren ehuneko 100 justifikatu behar da.

Nolanahi ere, onuradunak aurkeztutako aurrekontuaren zenbatekoa eta azkenean gauzatu eta justifikatutakoa bat datozela egiaztatuko du Osasun Publikoaren Zerbitzuak, justifikazioa egiaztatzeko fasean.

Guztira baliatutako zenbatekoa txikiagoa bada, murriztu egingo da hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa. Horrek ez du eragotziko bidegabe justifikatutako zenbatekoak (osorik edo zati batean) eta horiei dagozkien berandutze-interesak itzuli behar izatea, dirulaguntzen ordenantza orokorraren 40.1 b) eta c) artikuluan ezarritako kasuetan.

B programako prestatzaileek eta A programako antolatzaileek berdintasunaren arloko prestatuntza egiteko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuz gero, dagozkion egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte. Agiri horiek aurkezten ez badira, emandako laguntza gutxitu egingo da, irizpide horren balorazioari dagozkion ehunekoan.

Euskararen erabileraren jarraipena, "Euskararen erabileraren jarraipena egiteko fitxa" aurkeztuko da. Fitxa entitate onuradunen eskura dago udalaren webgunean: <http://www.vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak>.

Zeharkako gastuak.

Zeharkako kostuak edo gastu orokorrak onartuko dira, dirulaguntza gisa emandako zenbatekoaren ehuneko 10eraino. Halakotzat joko dira diruz lagundutako jarduera zehatzari zuzenean egoztekoak ez izan arren hura egiteko beharrezko direnak, esate baterako, entitatearen beraren mantentze-gastuak (argia, telefonoa, gasa, ura, alokairua, garbiketa eta aholkularitza).

Gastu horiek ez dira agiri bidez justifikatu beharko, baina adierazi egin beharko dira justifikazio-kontu arruntean, bai 2. atalean ("Proiektuari dagozkion gastu-egiaztagirien zerrenda") bai 3. atalean ("Sarrera eta gastuen balantzea").

### 19. Dirulaguntzak itzultzea

Emandako laguntza guztiz ez justifikatzeak edo behar bezala ez justifikatzeak emandako zenbatekoa itzuli beharra eragin dezake, osorik edo zati batean. Diruz lagundutako jardueren exekuzioaren ez betetze partzialen kasuan, itzuli beharreko zenbatekoa ez-betetzearen mailaren arabera izango da, betiere proportzionaltasun printzipioaren arabera.

Era berean, jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira dirulaguntzen ordenantza orokorraren 40. artikuluan adierazitako kasuetan.

**20. Informazioa eta aholkularitza**

Osasun Publikoaren Zerbitzuak [saludpublica@vitoria-gasteiz.org](mailto:saludpublica@vitoria-gasteiz.org) helbidearen bitartez emango die informazioa eta aholkuak interesdunei.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko abenduaren 15ean

*Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Saileko*

*Osasun Publikoaren Zerbitzuko zinegotzi ordezkoa*

*ANA ROSA LOPEZ DE URALDE GOMEZ*